

## Datuak eta publizitatea

Irrati digitalak soinuaz gainera testu eta irudien datuak igor ditzake. DAB irrati-hargailuen aurpegiak pantailatxo bat dago eta lerro batzuetako testua eman dezake.



Lehen fasean programaren izena, irrati-emisorearen izena, etab. emango ditu, baina gero eguraldiari edo zirkulazioari buruzko mezu txikiak ere bai. Laster irrati-hargailuak koloretako pantaila txiki osagarria ere izango du. Hor automobil-gidariak testuez gain irudiak ere izango ditu. Eginkizun nagusia auto-ilara handiak non dauden adieraztea izango da, baina publizitatea sartzeko leku aproposa ere izango dute.

Irrati-kanalak automobil-gidariari halako elkarreragintzarako aukera eskaintzen dio. Izan ere, DAB sistemak irudi asko igortzeko ahalmena du, baina pantailak aldiko bat besterik erakutsiko ez duenez gero, irrati-hargailuko memorian gordeko dira besteak. Gero botoien bidez gidariak denak ikusi ahal izango ditu, Internet-en ikusteko duen sistema bera erabilita. Pantailako orrialde bakoitza HTML (hypertext mark-up language) sisteman kodetuko da, hau da, Web-ek erabiltzen duen formatuan.